

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Murgiako UE-7 exekuzio unitatearen hirigintza hitzarmenaren behin betiko onespena**

2020ko ekainaren 24an izandako premiazko ezohiko saioan, zeinetara Udalbatza osatzen duten hamaika zinegotzitatik hamar bertaratu ziren, ondorengo erabaki zuen Udalaren Osoko Bilkurak aho batez:

LEHENENGOA. M<sup>a</sup> J. O. E. E. andreak eta beste hiruk, emandako txosten juridikoaren arabera Murgiako 7. poligonoko 46. lursailaren jabekide gisa, aurkeztutako alegazioa ez onartzea, ezezaguna delako zertaz ari diren alegaziotan ekialdeko eremuko lursailaren muga berreskuratzea eskatzen dutenean, delako hori indarreko plangintzan aurreikusita dagoelako, eta bat dato- rrelako fisikoki dagoen bidearekin eta, jabetzari eragiten ez dionez, ez daukalako zerikusirik hitzarmenaren izapidetzearekin.

BIGARRENA. Murgiako UE-7 exekuzio unitatea antolatu eta kudeatzeko hitzarmena behin betiko onartzea, 2020ko martxoaren 6ko ALHAOko 27. alean argitaratutako testuan jasotako estipulazioei jarraiki.

HIRUGARRENA. Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordeztu ari denari, gaitasuna ematea honen helburu den Hitzarmena eta horretarako beharrezkoa izan daitekeen dokumentazio osagarri guztia sinatzeko.

LAUGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

BOSGARRENA. Alegaziotan auzi Ruiz Incahurregi anai-arrebei erabaki honen berri ematea, eta azken horiei hitzarmena sinatzeko deia egitea.

Behin betiko onespeneraren erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik berraztertzeorrekurtsioa aurkeztu ahalko zaio, nahi izanez gero, erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2020ko uztailaren 22a

*Jarduneko alkatea*

**AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA**